

BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**PRIM 31**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1920/1921

Deskribapena

Bi fatxadako eraikina. Erdisotoa eta bastardea Gernikako Arbolaren pasealekurantz daude, eta behe oina Prim kalerantz. Gainera, jatorriz beste sei goi oin ditu, bosgarrena Prim kalerantz atzeraemana eta seigarrena bi fatxadetan atzeraemana azpiko oinarekiko. Harlanduzko fatxadak. Prim kalerantz dagoen fatxadan, erdiko begiratokia hormigoizkoa da. Erdisoto gaineko terraza, Gernikako Arbolaren pasealekurantz. Proiektu komuna Prim 27rekin eta 29rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitektureko proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; hormigoizko begiratokia.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehenagotzeak: erregimen orokor hori arautzeko baldintza orokorrak betetzeari loturikoak, hala badagokio.